



Basogintzaren sektorean, zuhaitzak moztean inguruan lanean ari diren arbola-botatzaileen gainera erortzean, edo talatzailea bera kolpatzean izandako istripuek ondorio **LARRIAK** edo **HILGARRIAK** izaten dituzte gehienetan.

IDENTIFIKATUTAKO KAUSA NAGUSIAK

- Mozketa hasi aurretik lanen **PROZEDURA** eta **PLANIFIKAZIO ZEHATZIK EZ IZATEA**.
- **EZ** errespetatzea **SEGURTASUN-DISTANTZIAK**, zuhaitzaren erorketaren eragin-eremuan (altuera halako bi, gutxi gorabehera).
- **EZ EGIAZTATZEA INGURUAN DAUDEN PERTSONAK**; edo, halakorik badago, **EZ ABISATZEA** erretiratzeko.
- Ebaketa zuzena ez egitea eta zuhaitzaren norabidea eta erorketa zuzentzeko beharrezkoak diren tresnak (ziriak, traktelak...) ez erabiltzea; **DOMINO-EFEKTUA** edo **ERREBOTE-EFEKTUA** eragin dezaketenak.
- **BILBADURATUTAKO** edo **ENGARBATUTAKO ZUHAITZAK**.
- **HAIZE GOGORREKIN** lanak egitea.
- **KONTUZ EZ IBILTZEA** lainoa denean.
- **IKUSPEN HANDIKO ARROPARIK** ez erabiltzea.
- Langileei arriskuen ebaluazioari eta lan-prozedura seguruei buruzko **PRESTAKUNTZA** eta **INFORMAZIOA** behar bezala **EZ** ematea.



PREBENTZIO-NEURRIAK

- **MOZKETA HASI BAINO LEHEN LAN PROZEDURA ETA PLANGINTZA** zehatza izatea, arriskuen ebaluazioa barne, baita lurraren aurretiazko azterketa, haize nagusien azterketa ere; linea elektrikoak edo telefonikoak egotea; ateratzeko bideak eta norabideak zehaztea; egurra mozteko eta kontzentratzeko puntuak; **ZUHAITZ ENGARBATUEN** kasuan jarduketa, **PREBENTZIOZKO BALIABIDEA** izatea.
- **SEGURTASUN-DISTANTZIAK** errespetatzea zuhaitzaren erorketaren eragin-eremuan (altuera halako bi, gutxi gorabehera).
- **EGIAZTATZEA** zuhaitzaren inguruan ez dagoela **PERTSONARIK**; eta, baldin badaude, **ABISATZEA** erretiratzeko. **EZ HASTE**A lana erretiratzen diren arte.
- **EBAKI ZUZENA** egitea zuhaitzaren erorketa zuzentzeko, **BEHARREZKO TRESNAK** (ziriak, traktelak, ...) erabiliz, eta **DOMINO** efektua eta **ERREBOTE** efektua saihestea.
- **EZ** egitea lanik **HAIZE ZAKARRA BADA**.
- Kontu handiz ibiltzea **LAINOA DENEAN**.
- **IKUSPEN HANDIKO ARROPA, KASKOA** eta beharrezko gainerako babes-ekipoak erabiltzea.
- Arriskuen ebaluazioari eta lan-prozedurei buruzko **PRESTAKUNTZA** eta **INFORMAZIOA** ematea langileei.

